



## 7. Haurrak, nerabeak eta Internet, pantailak, bideojokoak, sare sozialak ... onurak eta gatazkak. Nola kudeatu?

**Hartzaileak:** Nerabeen gurasoak

Nerabeen errealitate digitala: sare sozialak, online jolasak, onurak eta gatazkak. Familian kudeatzen



**Trebatzailea:** [Rakel Gamito](#)

### **Helburu orokorra:**

- Egungo errealitate digitala ezagutzea eta bertan bizi daitezkeen egoera gatazkatsuen edota arriskutsuen bitartekari izateko estrategiak barneratzea.

### **Helburuak:**

- Nerabeen errealitate digitala ezagutzea.
- Internetek nerabeen bizitzan duen eragin positiboa zein negatiboa lantzea
- Nerabeen Interneten erabilera segurua bermatzeko familiek duten zereginari buruz hausnartzea eta bitartekaritzarako estrategiak eskaintzea

### **Landuko diren edukiak eta gaitasunak:**

- Jendarte hiperkonektatuaren errealitate digitala (erabilera-ohiturak: gailuak, maiztasuna, edukiak...) eta horrekiko ikuspegi kritikoa
- Gailu digitalen abantailak: mundua ezagutu, komunikazioa eta harremanak, garapen kognitiboa, identitate erreferenteak...
- Pantailen gehiegizko erabileraren ondorio fisiko, psikologiko eta emozional negatiboak: tonu falta, gorputz-jarrera ezegokiak, arreta mantentzeko arazoak, emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko zailtasunak...
- Familiaren bitartekaritza teknologikoaren garrantzia eta gakoak.

### **Metodologia:**

- Oinarri kontzeptualen lanketa eta horiei buruzko hausnarketa ahozko azalpenen zein ikus-entzunezko materialen bitartez bideratuko dira. Horrez gain, parte-hartzaileei gaia familian sakontzeko material osagarria banatuko zaie.